# Denbora-

## 1 Labirintoa

Joselu Markelina lorearekin maitemindua dago. Bere maitearengana heltzeko bidea aurkitu ezinik dabil, ordea. Lagunduko al diozu?






## 2 Itzalak

Arkaitz indioz mozorrotu da inauterietan. Arku eta gezi honekin ibili zen kaletik. Asmatuko al zenuke itzal hauetako zein den Arkaitzen arkuarena?

Erantzunak: 2.-b. 3.- Elantxobe, Muskiz, Amoroto eta Lemoa. 4.- Mamu bat. 5.- 1.

## 3 Ezkutuko hitza

Ongi ezagutzen al duzue Bizkaia? Bizkaiko lau herriren izenak osatzeko adina bai, ezta? Mugitu letrak lekuz, eta aurkitu ezkutatzen diren herriak.

ELANOBTXE
MUKSZI
AMOOOTR
LEMAO

# -pasa

## 4 Margotu eta asmatu

Peru telebista ikusten ari zen, baina beldurtu eta ihesi joan da. Zer ikusi ote du? Margotu laukiak dagokion kolorez, eta jakingo duzu.



1-Beltza 2-Zuria 3-Urdina

## 5 Puzzlea

Puzzleak egitea da Igorrek gehien maite duena.

Lagunduko al diozu hutsunea betetzeko falta den fitxa aukeratzen?




## Ezkutuko txanpona

Non ote dago txanpona? Entzumenaren laguntzaz txanpona non dagoen asmatu beharko du jokalariak



**1** Jokalari guztiak lurrean eseriko dira, biribil batean. Jokalarietako bat erdian ipiniko da, eta beste bat zutik geratuko da, eskuartean txanpon bat duela.

**2** Lurrean eserita dauden jokalariek esku ahurrak batu, eta besoak luzatuko dituzte aurreko aldera. Biribilean dauden lagunen eskuetatik pasatuko ditu eskuak txanpona duen jokalariak, eta, inork ikusten ez duela, jezarrita dagoen jokalarietako baten eskuetan utziko du txanpona.

**3** Txanpona lagunen bati eman dionean, jokalari guztiek eskuak itxiko dituzte. Lurraren kontra hiru kolpetxo eman ostean, jokalariak esku zabalik geratuko dira, esku ahurrak lurraren kontra dituztela.

**4** Erdian geldirik dagoen jokalariaren lana izango da txanpona zein jokalarik duen asmatzea. Hiru aukera izango ditu asmatzeko. Txanponak lurraren kontra atera duen hotsak lagunduko dio horretan.